



BIZKARROI ETA KOPROKULTIBOETARAKO EGINKARIAK JASO

Zer da koprokultiboa?

Laborategiko azterketa bat da eginkarietan organismoak aurkitzeko (gai fekala) gaixotasunak edo urdail hesteetako gaixotasunak sor ditzaketenak.

Koprotokultiborako laginak, antibiotikoa hartu baino lehen egin beharko dira, eta bereziki beherakoaren-kontrakoak hartu aurretik.

¿Nola jasotzen dira eginkariak?

Eginkarien azterketaren eskaera egiterakoan, edukiontzi esteril bat emango zaizu horiek jaso eta garraiatzeko.

- Eginkariak ur eta xaboi ugarirekin garbitutako pixontzi moduko edukiontzi edo ziri batean jaso, ongi garbitutakoa eta lehortua.
- Odola, mukia, zornea dagoen lekutik hartu lagina.
- Adin Pediatrikoa duten pazienteetan eta fardela erabiltzen dutenetan, laginak bereziki ipurditik hartu behar dira eta ez fardaletik.
- Eginkariak esteril flaskora pasatu, 10 mlren bat eginkari likidoak direnean eta solidoak eta oretsuak direnean, hur baten moduko tamaina duten laginarekin nahikoa izango da.
- Itxi edukiontzia hermetikoki.
- Eman lagina Laborategira ahalik eta denbora laburrenean, une horretara arte lagina hoztuta mantendu.

Koprotokultiborako:

- Lagin bakarra.

Eginkarietan bizkarroiak analizatzeko

- Hiru lagin. Emaitza hobekia lortzen dira txandakako egunetan hiru lagin hartuz, parasitoen kanporatzea aldizkakoa izan baitaiteke.
- Zure osasun-zentroan hitzordua eskatu beharko duzu lagin bakoitza entregatzeko.
- Hozkailuan gorde, eman arte.